

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko urriaren 24tik urriaren 28rako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


ASTE HONETAN MERKATUETAN

GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: IFO



Datuaren analisisia

Urrian, enpresarien konfiantzak, **IFO**, hobekuntzaren bidari eutsi zion (110,5), eta 2014ko udaberrik ikusi gabeko mailetara itzuli zen. Osagaiei begiratuta, manufakturen industria azken hiru urtetan baino gehiago hazi dela ikus dezakegu. Kontratazioak nabarmen handitu dira, hein batean AEB eta Asiako ekonomien eskaera handitu delako. Baina aukeren zatiaren portaera ona azpimarratu behar da, 104 puntuetatik 106 puntuetaraino igo baita. Hortaz, txosten honek Alemaniako Banku Zentralak esan duena errepikatzen dator, Alemaniako ekonomiaren moteltzea ukatuz.


Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jardura ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: BPGd



Datuaren analisia

Urteko hirugarren hiruhilekoan, Erresuma Batuko ekonomia % 0,5 hazi zen, aurreko hiru hiruhilekoetako % 0,7tik behera, baina analisten % 0,3ko aurreikuspenetatik gora. Ekainaren 23ko erreferendumean Brexitek irabazi zuenetik, lehenengo datu esanguratsua da hori. Azken hiru hiletan BPGd-ak izan duen gorakadaren atzean zerbitzuen sektorearen emaitza onak ditugu, batez ere finantza-sektorearena, britainiar ekonomiaren motorea. Sektore hori hilean % 0,8ko erritmoan hazi zen.


Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Erresuma Batuak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd



Datuaren analisia

Urteko hirugarren hiruhilekoko BPGd-aren kalkuluaren arabera, hazkundera % 2,9koa zen, handiena bi urtetan, eta analistek aurreikusitako % 2,6tik gora eta aurreko hiruhilekoko % 1,4aren bikoitza. Hala ere, kontsumitzaileen gastuak, AEBtako ekonomiaren benetako motorrak, gora egin zuen uztailean eta irailean, urteko % 2,1eko erritmoan, % 2,6koa izatea espero bazen ere. Kontsumoaren moteltzea espero zitekeen zerbait zen, Conference Board eta Michiganeko Unibertsitatearen kontsumitzailearen konfiantzaren azterketak emandako datu ahulen ondoren.


Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztikoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI



Datuaren analisia

Japoniako kontsumoko prezioen indizea (KPI) % 0,5 jaitsi zen irailean 2015eko hilabete berarekin alderatuz. Horrela, zazpi aldiz jarraian egin du atzera. Petrolio gordinaren prezioa merkatzeak prezioen bilakaeran pisu gehien izan duen alorretako bat izan da. Joera horren ondorioz, gero eta zailagoa da Japoniako Bankuak (BoJ), bere malgutasun programaren bidez, inflazioa % 2 inguruan kokatzeko daukan helburua betetzea. Hala ere, analistek adierazi dute, petrolioaren nazioarteko prezioen gorakadaren ondorioz, Japoniako KPIaren beherakada apaldu egin dela azken hiletan, eta testuinguru horretan, Japonian, kanpoko energiarekiko mendekotasun handia den herrialdea izaki, adierazle hori berreskuratuko dela aurreikusten dute.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
10/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 1.9
10/31	Japonia	Hileko xehekako salmentak	% 0.2
10/31	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 1.5
10/31	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
10/31	Espainia	Kontu korrontearen balantza	--
10/31	Eurogunea	Urte arteko KPlaren kalkulua	% 0.5
10/31	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	54.0
10/31	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	2.0
11/1	Txina	Fabrikazioaren PMIa	50.3
11/1	Japonia	BOJ politika mota	-% 0.100
11/1	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	51.7
11/2	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	42.6
11/2	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	52.6
11/2	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	53.3
11/2	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
11/2	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	165k
11/2	Estatu Batuak	ISM New York	--
11/2	Estatu Batuak	FOMC tasen erabakia (sabaia)	% 0.50
11/2	Estatu Batuak	Tasen erabakia Erreserba Federala	% 0.25
11/3	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	--
11/3	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
11/3	Espainia	Hileko langabezia-tasa	77.0
11/3	Eurogunea	Langabezia tasa	% 10.0
11/3	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.250
11/3	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	256k
11/3	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	54.8
11/3	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
11/3	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	56.0
11/3	Estatu Batuak	Fabrika-eskariak	% 0.2
11/4	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
11/4	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	54.3
11/4	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.2
11/4	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	54.1
11/4	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	53.5
11/4	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	53.7
11/4	Eurogunea	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	-% 1.8
11/4	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$38.0b
11/4	Estatu Batuak	Langabezia tasa	% 4.9

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Mugimendu estuagoak eta portaera mistoak aste honetan burtsa-indize nagusietan. Europa eta AEBtako emaitzen denboraldian datu ugari atera dira; zenbait desilusio egon badira ere, balantzea nahiko positiboa da, eta errenta aldakorreko erreferentzia nagusia eman digute. Europan, Eurostoxx 50 indizeak aldaketarik gabe itxi du. Ibex 35 indizearen aurrerapena nabarmendu behar da, azken bederlatzi saioetako zortzitan gora egin baitu, Bankuen indarrari eta gobernua osatzeko bidea erraztu duen PSOeren abstentzioari esker. Sektoreka, enpresa farmazeutikoek eraman dute zigorrik handiena, eta energia-enpresek, aldiz, petrolioaren prezioaren murrizketen biktima izan dira berriro. Onura gehien atera duten baloreak oinarritzko baliabideak, autoak eta finantzarioak izan dira. Bonuetako tasen igoerak finantza-enpresen alde egin du. Wall Streeten, indizeek ez dute joera argirik izan, herrialde gorakorretan bezala. Japoniako burtsa Asiaren buruan jarri da, yenak balioa galtzeari esker.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.298,62	-0,48	1,64
IBEX 35	9.201,30	1,11	-3,59
DJ EURO STOXX 50	3.079,24	0,05	-5,76
DJ STOXX 50	2.834,55	-1,08	-8,57
FTSE	6.996,26	-0,34	12,08
S&P 500	2.126,41	-0,69	4,03
Dow Jones	18.161,19	0,09	4,22
NASDAQ	5.190,10	-1,28	3,65
NIKKEI 225	17.446,41	1,52	-8,34
MSCI EMERGENTES (Lo)	48.834,40	-0,78	9,78
MEXBOL	48.007,20	-0,85	11,70
BOVESPA	64.307,63	0,31	48,35
SHANGHAI	3.250,16	0,43	-12,26
Rusia Rts Moscú	992,23	0,59	31,07

ERRENTA FINKOA:

Europako zor publikoaren errentagarritasunak haien minimo historikoetatik aldendu dira, presio deflazionistak urruntzen ari diren neurrian. Inflazio-tasen igoera, gainera, AEBetan ia seguru emango den interes-tasen igoera baino lehen gertatu da. Europaren kasuan, tasen igoera ematen ari diren enkante gogorrek lagunduta dator (paper asko dago eta horrek gorako mugimenduei laguntzen die), Alemaniakoa Brexitaren aurreko mailetan kokatuz. Merkatu periferikoetan, hamar urterako Espainiako bonuaren interesak gora egin badu ere, Espainiako arrisku-prima oinarritzko 100 puntuen mugatik gertu dago, brundaren errentagarritasunek gora egin dutelako. AEBtan, 10 urterako tasa ere Brexitaren aurreko mailetara iritsi zen. Errenta finko pribatuan ere tentsionamendu hau bizi izan genuen.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	2006 ald
ALEMANIA 2 URTE	-0,62	0,04	-0,27
ESPAINIA 2 URTE	-0,14	0,07	-0,15
AEB 2 URTE	0,85	0,03	-0,20
ALEMANIA 10 URTE	0,17	0,16	-0,46
ESPAINIA 10 URTE	1,23	0,12	-0,54
AEB 10 URTE	1,85	0,11	-0,42
ALEMANIA 30 URTE	0,80	0,18	-0,69
ESPAINIA 30 URTE	2,41	0,19	-0,57
AEB 30 URTE	2,62	0,13	-0,40
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	72,51	1,42	-4,76
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	328,50	8,92	13,88

DIBISAK/LEHENGAIK:

EBZren bileraren ondorioz eman diren erorketen ondoren, euroak posizioak berreskuratu ditu. Yena balioa galtzen ari da oraindik, eta liberak ere balioa galdu du euroaren aldean, BoEk tasak murrizteko aukerak urritu zituzten Carneyren hitzak gorabehera. Petrolioaren prezioa 50 dolarretik jaitsi da lehenengo aldiz urriaren 3tik, azaroan ekoizpena mozteko lortu daitekeen akordioak pizten dituen zalantza gero eta handiagoak direla-eta.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,10	0,92	1,18
Yena / Euroa	115,05	1,84	-11,97
Libera / Euroa	0,90	1,05	22,07

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brent)	47,97	-4,06	34,18
Urrea	1.275,50	0,73	20,17

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.